

## **Irakurzaletasuna eta zinea bateratuko ditu aurten Getxoko Liburu Azokak**

Getxo. Liburuaren Nazioarteko Eguna gertu dago eta Getxok urteroko Liburu Azoka antolatu du aurten ere. Algortako Geltokia plazan burutuko da bihartik datorren astelehenera arte udal liburutegiek antolatutako ekimena bertoko hamar liburu-dendaren etxolak eta hainbat jarduera, gehienak haurrentzat, hartuko ditu. Azken horiek zinearen mundua izango dute ardatza aurten.

Azokan, bisitariak liburuak, komikien eta haurrentzako ipuinen azken nobedadeak erosteko aukera izango dute. Halaber, jarduera anitz izango dira: ipuin kontaketa, tailerrak, film laburren proiektzioa, hitzaldia, ikasle getxotarren ohiko jendaurreko irakurketa eta egileen sinatze-saioak, besteak beste. Horiez gain, udal Immigrazio Arloaren eta Euskara Zerbitzuaren eskutik kultura anitzen kondairen eta mitoen inguruko postu bat egongo da.

Ohi denez, kultur etxeko liburutegiek beren gunea izango dute azokan. Horrela, irakurleei liburuak mailegatzeko aukera eskainiko zaie, eta etxera eraman ahal izango dituzte. Halaber, umeei eta gazteei komiki eta ipuin interesgarriak aurkituko dituzte bertan irakurri ahal izateko.

Jarduerei dagokienaz, azoka osoan zehar haurrentzako tailerrak, jolasak eta argazki zaharren erakusketa bat izango dira. Azken horretan San Nikolaseko liburutegiko argazki bildumako irudiak egongo dira ikusgai. Aurten, San Nikolas plaza, atzo eta gaur erakusketak plaza algortarraren bilakaera izango du ardatz.

Azokaren ordutegia 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara izango da, ostiralean eta astelehenean izan ezik. 20an, arratsaldean soilik irekiko da; 23an, berriz, ordubete lehenago itxiko da arratsaldean.